

**“.../2017 ARAUGINTZAKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA, 2017KO ...REN ...(E)KOA, ONARTZEN DUENA 64/4989 FORU ARAUAREN, ARABAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN TASEN ETA PREZIO PUBLIKOENAREN, TESTU BATEGINA.”**

## **ZIOEN AZALPENA**

Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak (ALHAO, 21. zk., 2017-02-20koa), azken xedapenetatik bigarrenaren 2. paragrafoaren a) idatz zatian, berariaz adierazi ondoren “foru ordenamendu juridikoa berrikusi eta erraztu behar dela”, honako hau xedatzen du: “lege baterakuntza horretarako abian jarri beharreko lehen neurria ezartzen du, hain zuzen ere Batzar Nagusien baimena hainbat foru arau bateratzeko, argiakoak eta koherenteagoak izan daitezen” (1/2017 Foru Arauaren zioen azalpeneko azken lerroaldea).

Ondorioz, 1/2017ko Foru Arauak azken xedapenetatik bigarrenaren berariaz agintzen dio Arabako Foru Aldundiari egin dezala azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauaren, tasa eta prezio publikoaren, testu bateratua, honela:

*“Azken xedapenetatik bigarrena. Arauak sinplifikatzea eta arauketaren kalitatea hobetzea.*

1. *Gardentasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioen berariazko adierazpen gisa, Arabako Foru Aldundiak bere antolamendu juridikoko arauak berrikusi, sinplifikatu eta, hala behar denean, bateratu egingo ditu, arau esparru laua, argia eta gutxi sakabanatua lortzeko, herritarrek erraz ezagutu eta ulertu ahal izango dutena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa betetzeko eta hizkuntzaren erabilera ez sexista zabaltzeko behar bezala egokitua.*

2. *Lege baterakuntzako prozesu horri berehala ekiteko premia dela eta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoarenak, 62. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen duenarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari baimena ematen zaio behean azaltzen diren arauak eta horiek aldatu dituzten xedapenak behar bezala erregularizatuta, argituta eta harmonizatuta bilduko dituzten testu bateratuak onar ditzan, foru arau honek indarra hartzen duenetik hasita urtebeteko epean:*

a) *64/1989 Foru Araua, azaroaren 20koa, tasa eta prezio publikoena.”*

Foru legegintza-botereak emandako agindu hori bete du Foru Gobernu Kontseiluan aurkeztearekin, gero Arabako Batzar Nagusietan baliozkotu dadin, testu bateratu hau, zeina onartu beharko baita abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoarenak, 62. artikulutik 66.era bitartekoetan jasotako araugintzako foru dekretuak onartzeko prozeduraren eta moduaren bidez.

## **I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua. Helburua.**

1.- Foru Arau honen helburua Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa arautzea da.

Ondorio horietarako, Arabako sektore publikoaren ekonomia, finantza eta aurrekontu araubidea erregulatzen duen foru araudian hala definitu eta sailkatutako erakundeek osatzen dute Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa.

2.- Foru Arau honen xedapenak ez zaizkio aplikatuko erakunde horiek zuzenbide pribatuko arauen arabera dihardutenean egiten dituzten jardueren eta ematen dituzten zerbitzuen kontraprestazioari.

3.- Arabako foru sektore publiko administratiboa osatzen duten erakundeei dagozkien tasa eta prezio publikoak haietako bakoitzari dagokion diruzaintzan sartuko dira.

4. Arabako foru sektore publikoko gainerako erakundeei dagozkien eskubideen bilketa, zaintza eta sarrera haiei aplikatu behar zaien arauak arautuko dute.

5.- Ogasun, finantza eta aurrekontuen arloan eskudun den foru saileko diputatuak tasa eta prezio publikoak ezartzea eta haiek eguneratzea proposatu ahalko die Arabako Foru Aldundiaren sailei, nahiz haiei atxikitako foru sektore publikoko erakundeei proposatu ahalko die, egokia denean.

### **2. artikulua. Aurrekontu neurriak**

Aurreko artikulua aitutzen dituen baliabideen errendimendua osorik aplikatuko zaio dagokion sarreren aurrekontuari, eta ezingo da egin kenketarik ez murrizketarik, subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion kausengatik zerga egitatea ez gertatzeagatik eskatutako tasak itzuli ezean.

### **3. artikulua. Erantzukizunak**

Tasa edo prezio publiko bat nahita eta erruz era desegokian eskatzen duten, nahiz ezarritakoa baino kopuru handiagoan eskatzen duten agintariak, funtzionario publikoak, eragileak edo antzekoak diziplina hutsegite oso astuna egingo dute, haien jarduerak beste mota bateko erantzukizunak ere ekar balitzake ere.

Erabakiak modu berean hartu edo Foru Arau hau eta arlo hau arautzen duten gainerako xedapenak hausten dituzten ekintzak egiten dituztenean, bestalde, kalteordaina ordaindu beharko diote administrazioari eragindako kalteengatik.

### **4. artikulua. Aplikazio gehigarria.**

Foru Arau honek aplikazio gehigarria izango du, toki ogasunen tasa eta prezio publikoak arautzen dituen legediarekiko.

## **II. TITULUA. TASA. I. KAPITULUA. Arau orokorrak**

## **5. artikulua. Kontzeptua eta aplikazio eremua.**

Tributuak dira tasak eta haien zerga egitatea hauetakoren bat izan daiteke: jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, zergadunari modu berezian dagozkion, eragiten dioten edo onura egiten dioten zuzenbide publikoko araubideko zerbitzuak ematea nahiz jarduerak egitea, zerbitzuak edo jarduerak zergadunentzat borondatez eskatu edo jasotakoak ez direnean edo sektore pribatuak ematen edo egiten ez dituenean.

## **6. artikulua. Baliokidetasun printzipioa**

Euren zerga egitatea dakarren zerbitzu edo jardueraren kostua estaltzea bilatuko dute tasek.

## **7. artikulua. Ahalmen ekonomikoaren printzipioa**

Tasak ezartzerakoan, kontuan hartu behar da zer-nolako ekonomia ahalmena duten tasok ordaindu behar dituzten pertsonak, baldin eta tributuen ezaugarriek horretarako aukera ematen badute.

## **8. artikulua. Tasen iturri arautzaileak**

Hauek arautuko dituzte tasak:

- a) Tasen arloko klausulak dauzkaten nazioarteko tratatuek nahiz hitzarmenek, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen araudian xedatutakoaren arabera.
- b) Foru Arau honek, Arabako foru sektore publikoaren ekonomia eta aurrekontu araubidearen zergen foru araudi orokorrak, kontrakoa xedatzen ez badute.
- c) Kasuan kasu, tasa bakoitzaren foru arauak.
- d) Foru arau horiek garatzeko egindako erregelamenduzko xedapenek.

## **9. artikulua. Ezartzea eta arautzea**

1. Tasak ezartzeko eta haietako bakoitzaren funtsezko osagaiak arautzeko, foru araua bete behar da.
2. Tasen funtsezko osagaiak dira testu honek hurrengo kapituluan ezarritakoak.
3. Foru arauaren bidez baimentzen denean, hark ezartzen dituen kuantifikatzeko irizpideen edo elementuen mende, tasa bakoitzeko eska daitezkeen zenbatekoak erregelamenduzko xedapenez zehaztu ahalko dira.

## **10. artikulua. Aurrekontu aurreikuspena**

Tasen ordainarazpenak Arabako foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen aurrekontuetan aurreikusita egon behar du.

## **11. artikulua. Itzultzea**

Eskatutako tasak itzuli beharko dira subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion kausengatik haien zerga egitate gauzatzen ez denean.

## **II. KAPITULUA. Tasaren zerga lotura juridikoa.**

### **12. artikulua. Zerga egitatea**

Tasak ezarri ahalko dira Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko zuzenbide publikoko araubideko zerbitzu hauetakoren bat eman nahiz jarduera hauetakoren bat egiteagatik:

- a) Lizentziak, bisatuak, matrikulak edo administrazio baimenak izapidetu nahiz egita.
- b) Alderdiak eskatuta ziurtagiriak edo agiriak egitea.
- c) Liburuak legeztatu eta zigilatzea.
- d) Zaintzeko, zuzentzeko, ikuskatzeko, ikertzeko, azterlanak egiteko, txostenak egiteko, aholkatzeko, egiaztatzeko, arakatzeko nahiz prospekzioak egiteko jarduera teknikoak eta fakultatiboak.
- e) Proiektuak aztertzea, egiaztatzea, erkatzea, saioak edo homologazioak egitea.
- f) Balioespenak eta tasazioak.
- g) Erregistro ofizialetan eta publikoetan inskribatzea eta oharra egitea.
- h) Zerbitzu akademikoak eta osagarriak.
- i) Aireportu zerbitzuak.
- j) Osasun zerbitzuak.
- k) Pertsona jakinei dagozkien, eragiten dieten edo onura egiten dieten nahiz haiek zuzenean edo zeharka eragin dituzten zerbitzuak edo jarduerak orokorrean.

### **13. artikulua. Lurralde aplikazioa**

Zerbitzu edo jarduera publikoengatik tasak haiek eman edo egiteagatik eskatuko dira, eta ondore horietarako ez du garrantzirik izango zerbitzua non eman edo jarduera non egiten den.

### **14. artikulua. Sortzapena**

- 1. Tasak kasu hauetan sortu ahalko dira, euren zerga egitatearen izaeraren arabera:
  - a) Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia ematen denean edo zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean, lehenago jartzeko eskatu badaiteke ere.
  - b) Jarduketa edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean. Hura egin edo tramitatu aurretik behar den kopurua ordainduko da

2. Tasak aldiaren behin sortzen direnean, dagokion erregistro, errolda edo matrikulan altari dagokion likidazioa jakinarazitakoan, hurrengo likidazioak ALHAOko iragarkien bitartez jakinarazi ahalko dira, kolektiboki.

#### **15. artikulua. Tasen subjektu pasiboa**

1. Tasen subjektu pasiboak izango dira, jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia jasotzen duten pertsona fisiko juridikoak edo zerga egitatea dakarten zerbitzu edo jarduera publikoek pertsonalki nahiz euren ondasunetan onura dakarkietenak.

2. Kasuan kasu, subjektu pasiboak izango dira jaraunspen banatugabeak, ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik izan ez arren zergagai diren batasun ekonomikoa edo ondare banandu izaera duten gainontzeko entitateak.

#### **16. artikulua. Erantzukizuna**

1.- Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean zerga zorraren erantzukizunaren eta bermeen arloan xedatutakoa ere kontuan hartuta, tasa baten zerga egitatea dakarten administrazio jarduerak edo zerbitzuak eragiten dituzten arriskuen aseguru erakundeak edo sozietateak solidarioki arduratuko dira tasez.

2.- Etxebizitzen, nabeen, lokalen edo, orokorrean, higiezin erabiltzaile edo okupatzaileen aldeko zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan, higiezin horien jabeak erantzule subsidiarioak izango dira.

#### **17 artikulua. Salbuespenak eta hobariak**

Foru Arau honen 7. artikuluan aurreikusitakoa kontuan hartuta, tasen arloan, ez da zerga hobaririk onartuko, sektore publikoko erakundeen alde edo nazioarteko tratatu edo hitzarmenetan xedatutakoaren ondorioz baino.

#### **18. artikulua. Tasaren osagai kuantitatiboak**

1.- Tasen zenbateko kalkulatu, jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu beraziagatik, dagokion merkatuko balioa edo hark dakarren onurarena erreferentzia hartuta ezarriko da.

2. Oro har, eta ondorengo paragrafoan jasotakoaren arabera, zerbitzua emateagatik edo jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan, batera hartuta, zerbitzu edo jarduerak benetan duen edo izan dezakeen kostua edo, halakoaren ezean, zerbitzuaren prestazioaren balioa baino

3. Zenbateko hori zehazteko kontuan hartuko dira zuzeneko eta zeharkako kostuak, kostu finantzario aplikagarriak, ibilgetuaren amortizazioa eta, hala behar denean, tasa eskatzen zaion zerbitzu edo jardueraren mantentzea eta bidezko garapena bermatzeko behar diren kostuak barne, eta hori guztia haiek ordaintzeko erabiltzen den aurrekontua kontuan hartu gabe

4. Zerga kuota horretarako adierazitako kopuru finko bat izan ahalko da, zerga oinarri diren osagai kuantitatiboek aplikatutako zerga tasa baten arabera kalkulatu edo prozedura biak batera erabiliz ezarri ahalko da.

5. Ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauetako tasen zenbatekoa aldatu ahalko dute.

### **19. artikulua. Ekonomia eta finantzako memoria**

1. Tasa berria ezartzeko edo lehendik dagoen baten zenbatekoak berriaz aldatzeko proposamena egiten bada, aurrekariaren eta aurretiazko azterlanen artean ekonomia eta finantza memoria sartu behar da, dena delako baliabidearen edo jardueraren kostua edo balioa zehaztu eta proposatutako tasaren zenbatekoa justifikatzen duena.

Baldintza hori ez betetzeak tasen zenbatekoak finkatzen dituzten arauetako xedapenak zuzenbide osoz baliogabeak izatea ekarriko du.

Aurrekoa gorabehera, ez da aurkeztu beharko lehenengo paragrafoan aipatzen den ekonomia eta finantza memoria errealizazioak egiteko ez eguneratze orokorrak egiteko, ez eta tasaren zenbatekoa gutxitzeko ere, dena delako zerbitzuaren kostua nabarmen murriztu ezean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, murrizketa nabarmen hartuko da aurreikuspenaren arabera zerbitzuaren kostuak izango duen beherakada aurreko erabakiari (ezarpenekoa zein aldaketa nabarmena egitekoa) atxikitako txosten tekniko-ekonomikoan aurreikusitako kostuaren ehuneko 15a baino gehiago bada. Txosten tekniko-ekonomikoa ez dela behar frogatzeko, gastua kudeatzen duen organoak aldaketa erabakiaren espedientean berriaz adierazi beharko du murrizketa ez dela nabarmena. (Apirilaren 15eko 13/2013 Foru Arauak, 2013rako zerga neurrienak, aldatutako idatz-zatia)

2. Jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak berekin hura suntsitzea edo narriatzea dakarrenean eta hori arestiko idatz-zatiak aipatu ekonomia eta finantza memorian aurreikusi ez denean, tasaren subjektu pasiboak berreraikitze edo konpontzeko gastuen kostu osoa itzuli beharko du. Kalteak konponezinak badira, kalteordaina suntsitutako ondasunen balioaren edo ondasun narriadurei eragindako kaltearen zenbatekoaren adinako kopurua izango da.

## **III. KAPITULUA. Tasak kudeatzea eta likidatzea**

### **20. Artikulua. Ordainketa**

Tasak eskudirutan nahiz efektu tinbredunak erabiliz ordaindu ahalko dira, erregelamenduz xedatutakoaren arabera.

Arabako Foru Aldundiak hala baimentzen duenean, erregelamenduz xedatutakoa betez, finantza erakundeek emandako kreditu edo zordunketa txartelak erabiliz ordaindu ahalko da.

### **21. artikulua. Kudeaketa**

1. Arabako Foru Aldundiari dagokio tasak kudeatzea, Ekonomia Itunean xedatutakoa betez.
2. Arestikoa gorabehera, eta tasa bakoitzaren izaeraren eta ezaugarrien arabera, Foru Gobernu Kontseiluaren Foru Dekretuaren bidez, zergak kudeatzeko prozeduran Arabako Foru Aldundia ez diren beste administrazio, entitate edo erakunde batzuek parte hartzea xedatu ahalko da.
3. Tasen kudeaketan, nolana ere, Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren printzipioak eta prozedurak ezarriko dira eta, bereziki, zerga likidazioak, zerga bilketa, zergen ikuskapena eta administrazio bideko egintzen berrazterketa erregulatzeko arauak.

## **22. artikulua. Autolikidazioa**

Tasen objektu pasiboek zergak autolikidatzeko eragiketak egin beharko dituzte eta Foru Ogasunean ordaindu beharko dute zenbatekoa, erregelamenduz hala xedatzen denean.

## **III. TITULUA. PREZIO PUBLIKOAK**

### **23. artikulua. Kontzeptua**

Prezio publikoak izango dira zerbitzuak eskaintzeagatik edo zuzenbide publikoko araubidean egindako jarduerak bideratzeagatik ordaintzen diren diruzko ordainak, zerbitzu edo jarduera horiek hiritarrek beren borondatez eskatzen dutenean eta sektore pribatuak zerbitzu edo jarduera horiek eskaintzen ere dituenen. (Azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatutako artikulua)

### **24 artikulua. Zenbatekoa**

1. Prezio publikoak, gutxienez, jarduerak egiteak edo zerbitzuak emateak sortutako kostu ekonomikoak estaltzeko mailan edo haiek eragindako onuraren pareko mailan kalkulatu dira.
2. Hala aholkatzen duten gizarte arrazoiak, ongileak, kulturalak edo onura publikokoak daudenean, aurreko idatz-zatian aurreikusitako parametroen azpiko prezio publikoak ezarri ahalko dira, diruz lagundutako prezioaren zatia estaltzeko behar diren aurrekontu aurreikuspenak hartu ondoren.

### **25. artikulua. Ezartzea eta aldatzea**

1. Prezio publikoen zenbatekoa foru dekretuz ezarri edo aldatuko da, foru arau batek kontrakoa xedatu ezean.
2. Prezio publikoen zenbatekoa ezarri edo aldatzeko proposamen ororekin batera haientzat proposatzen den zenbatekoa eta dagozkien kostuen finantza estaldura maila arrazoituko dituen ekonomia eta finantza memoria bat egingo da. (Azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatutako artikulua) B eta G eransten dira. (Es TR)

### **26. artikulua. Administrazioa eta kobrantza**

1. Prezio publikoak Arabako Foru Aldundiak administratu eta kobratuko ditu.

2. Arestikoa gorabehera, eta prezio publiko bakoitzaren izaeraren eta ezaugarrien arabera, Arabako Foru Aldundiak administratzeko eta kobratzeko prozeduran jaso behar dituzten erakundeek parte hartzea xedatu ahalko du.

3. Prezio publikoak haiek egotea eragin duten zerbitzuak ematen hasten denetik eskatu ahalko dira.

4. Prezio publikoak eskudirutan edo efektu tinbredunak erabiliz ordaindu ahalko dira.

Arabako Foru Aldundiak hala baimentzen duenean, erregelamenduz xedatutakoa betez, finantza erakundeek emandako kreditu edo zordunketa txartelak erabiliz ordaindu ahalko da.

5. Prezio publikoen zenbateko oso edo partziala aurreratzeko edo lehenago jartzeko eskatu ahalko da.

6. Prezio publikoa ordaindu behar zaionari egotzi ezin zaizkion kausengatik zerbitzua ematen edo jarduera egiten ez denean, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da edo, ikuskizunak badira, sarrerak aldatzea posible denean.

7. Testu honetan berariaz aurreikusitakoan, prezio publikoak Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauan eta haiei aplikatu behar zaizkien gainerako arauetan xedatutakoaren arabera administratu eta kobratuko dira.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta geratzen da azaroaren 20ko 64/1989 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren tasa eta prezio publikoak arautzen dituen.

#### **AZKEN XEDAPENAK**

##### **Lehenengoa**

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio testu bategin hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

##### **Bigarrena**

Testu bategin hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

##### **Hirugarrena**

Araugintzako Foru Dekretu hau Arabako Batzar Nagusietara bidaliko da, ezarritako prozeduraren arabera, baliozkotzeko edo indargabetzeko, bere kasuan